

## HUMBOLDT: HIZKUNTZA ETA PENTSAMENDUA

Joxe Azurmendi  
UPV/EHU

**Palabras clave:** Lenguaje y pensamiento, concepto, palabra, síntesis de sensibilidad e idealidad, orden lingüístico de lo real, conocimiento, intersubjetividad y objetividad.

**Abstract:** en el tema del origen y naturaleza del lenguaje, Humboldt resuelve la oposición de idealismo versus sensismo de las tradiciones cartesiana y lockeana siguiendo el modelo de la síntesis kantiana: el concepto surge en y por la palabra, ideal y sensible al mismo tiempo, individual y comunitario. El lenguaje es el fundamento de la objetividad del conocimiento, que a su vez es siempre un momento provisional en un proceso perpetuo de diálogo.

*Über Denken und Sprechen* —pentsatze eta mintzatzeaz— izenburutu du Leitzmann argitaratzaileak (1903 eta hur.), bere iritzian Humboldt-en «hizkuntzaren zerizanagaz enplegatzen den izkribu goiztiarrena» (1795/96), autoreak inedito utzia. 16 tesitan biltzen du Humboldt gazteak bere pentsamendua hizkuntzari buruz. Espezialisten esanean, tesiok Fichte-ren argitan eginiko Herder-en irakurketari zor zaizkion anotazio/gogoeta pertsonalak izan litezke (Helfer, 1990; Menze, 1965, 211. or. eta hur.; Humboldt, V. lib., 640. or. eta hur., argitaratzaileen oharrak). Hasteko, nahikoa erakusten dute, autore horiengan bilatu behar ditugula Humboldt-en pentsamenduaren lehen iturriak. Baina, gero, tesi franko abstraktuak dira —abstrusak ez esateko—, eta nabaria da ezagutzaren posibilitatearen kritika kantiarraren planteamendutik heltzen zaiola hizkuntzaren jatorriaren, hots, jada zerizanaren arazoari. Hona hemen aurreneko zazpi tesiak (besteek zeinuaz eta ahotsaren gisakotasunaz zeinu gisa dihardute). Adigai edo kontzeptuaren sorreragaz hasten da:

«1. Pentsatzearen esentzia hausnarketan (*Reflectieren*) datza, hau da, pentsatzailearen eta pentsatuaren berezkuntzan.

2. Hausnartzeko, izpirituak egin behar du, bere ekintza jarraituan momentu bat geldi gelditu, aresiantxe errepresentaturikoa batasun batean oratu, eta era honetan, gauza bezala, bere buruari kontrajarri.

3. Gero batasun hauek, horietako hainbat era ditzake berak molde honetan, euren artean konparatzen ditu, eta banatu eta elkartu egiten ditu bere premien arabera.

4. Beraz, pentsatzearen esentzia beronen ibilera propioan zatiak egitean datza; hartara bere ekintzaren zatiekin (*Portionen*) osotasunak biltzean; eta bildumok banaka beren artean, baina denak elkarrekin, objektu bezala, subjektu pentsatzaileari kontrajartzean.

5. Pentsamendurik ezin da eman, ezta huts-hutsena ere, gure sentimenaren forma orokorren laguntzaz baizik; haietan bakarrik ahal dugu guk kontzebitu eta, nolabait esan, tinkatu.

6. Zeinuztatze sentigarria, bada, batasunena, horietan direnak batu pentsamenduaren zati jakin batzuk, osotasun handiago baten zati gisa kontrajarriak izateko beste zati batzuei, objektuak subjektuari bezala; hori deitzen da adierarik zabelenean hitza: hizkuntza.

7. Hortaz, hizkuntza, hasi, artekogabeki eta ziplo lehenengo hausnarketa ekintzagaz hasten da, eta giza-  
kia agiantzen soraiotik, hor subjektuak objektua irentsi egiten du, autokontzientziara esnatzen den orduko, berton dago hitza ere —nolabait esan, gizakiak bere buruari ematen dion estreinako bultzada, bat-batean geldi gelditu, ingurua miatu eta orientatzeko» (V, 97.-98. or.).

Hau dena, gutxienez hor dagoen bezala, piska bat harrigarria bada: pentsamenduaren esentzia hausnarketa da, baina hausnarketak pentsamendua auresuposatzen du (ez omen dagoena oraindik, baina egon

beharra daukana, bere hausnarketa baita egiten duena), eta hain zuzen ere pentsamendu bat, aski trebe dena bereizteko pentsatzailea (bera) eta pentsatua, are bere burua dazaguena, zatitan zatiebaki ahal izateko, hauek beren artean konparatzeko, etab. Bestalde, pentsamendurik ez dela inola ere posible esaten zaigu tupustean eta loturarik gabe aurrekoarekin, ez baldin bada sentigarritasunaren forma orokor kantiarren laguntzagaz. Eta, jauzi logiko mortale batekin, pentsamendu zati haien zeinu sentigarria aurkezten zaigu: hizkuntza. Tesion zentzua zinez ulertzeko edo nolabait asmatzeko, horietan aludituak diren Herder, Kant eta Fichte gogoratu beharra dago.

Xorroxtasun gehiegitan sartu barik eta orokorki<sup>1</sup>, gizakia, Herder-en antropologian ikusten den bezala, alde guztietatik inpresio beti berriek atergabe eraso dago bere zentzu guztien gainean, etorri bezala doazenak eta berehalaxe ahaztuak. Horrela gizakiaren garunean (ariman) uhol kaotiko bat bezala ari da beti pasatzen, «pentsamendu» inkontziente bat. Pentsamendu hau abereek ere badute: pentsamenduaren eta niaren artean ez dago diferentziarik; ez dago nirik, hobeto (aktibo), ez dago «pentsamenduaren» berezko jarioa besterik. Pentsamendu prelingusitikoa (Borsche, T., 1981, 304.-305. or.). Bat-batean gizakiak, buruan geldigabe darion inpresioen uholean «presentazio» bat berezi eta ebaki —latinez: «artikulatu»—, eta hori zerki beregain bihurtzen du, kontzienteki «pentsatua» (kontrajarria pentsatzaileari), hau da, «errepresentatua»: kontzeptu bat. Horrelako zati —adigai— gehiago euren artean konparatu egiten du gero, eta elkartu edo banatu. Beraz, esan genezake pentsamendua propioki pentsamenduaren pentsatzea bezala hasten dela, garuneko (erre)presentazio jarioaren («pentsamendua 1», pasiboa) ebaketa eta hausnarketa bezala, alegia («pentsamendua 2», aktiboa). Bestetik, hausnarketa ez da posible zer hausnarturik gabe, eta zer hori pentsamenduari, zentzuetatik datorrekin inpresioen errekak bakarrik eman ahal dio: pentsamendurik ez, aurretik zentzuetatiko materiala gabe. Azkenik, zentzuetatik datorrena ezin zaio gizakiari bestela etorri, sentierako forma orokor gizatiarren araberekin baizik. Inpresio edo (erre)presentazio berez iheskor bat geldiarazi, ebaki eta errepresentatu dugunean, zeozelan atera egin dugu denboratik eta atera egin dugu «subjektutik» ere; hots, beregain bihurtu dugu, objektibo. Horrela, mundu material inpresioen igorlearen eta gizaki (erre)presentazio iheskorren hartzailearen artean, bien arteko mundu berezi bat sortzen dugu airean, errepresentazioena, objektu «pentsatuena» edo pentsamendu zatikatua objektutan, munduaren pentsamendua edo ispilua (gizatiarra). «Pentsamendu 1»eko zati (kontzeptu) horiek orain, lehen ere zentzuen ekarpenari zor zirenak, «pentsamendu 2»ak elkartu edo banatu egiten ditu, erlazioetan jarri eta ordenatu (nahiz ontologiaren maneran: substantziak eta akzidentek, etab., nahiz gramatikaren maneran), zer aurrean, zer atzean edo alboan, lehenago edo geroago, etab., jarduera hau berau eskema espazio-denboralaz baliatzen baita (giza sentimenaren forma orokorrak). Ez da dena. Izan ere, ez kontzeptu/zati haiek tinkotasunik eta iraunkortasunik izan dezakete (ez daitezten desegin eta berriro galdu «pentsamendu 1»en etenbako uholean eta, beraz, ahazturan), ez adigaien artean ezarritako ordenak izan dezake egonkortasunik, «pentsamendu 2»ak hori nolabait irmotzen ez badu. Horixe da egiten duena, eta horrekin baino ezin egin dena bestela, pentsamendu zatiari, hasieran jada baldintza sentigarrien arabera ebakiari, orain forma bat sentigarria ematen dionean berari ere: hitza, hizkuntza. Pentsamendu zatiak, a) bere formaren mugaketa —sentigarritasunaren baldintzen arabera—, eta bereziki, b) mugaketa horren tinkotasun eta iraunkortasuna, hitzean/hizkuntzan bakarrik edireiten du.

Analisi modu honek Ilustrazioko epistemologia klasikoa auresuposatzen du, eta Humboldt-en soluzioan, M.L. Manchester-ek adierazten duen bezala (T. Borsche-ri darraikiala), pentsamendu linguistikoa momentu erabakiarria ebaketa (ideal eta foniko) edo artikulazioarena da: «Articulation thus may be viewed as a process of self-analysis by a subject of its own stream of consciousness. That stream of consciousness itself, prior to such analysis/articulation, is generally viewed by Enlightenment philosophers

<sup>1</sup> Humboldt-en hausnarketaren kontzeptua hor zehazki Fichte-rena dela, ez Herder-ena, abertitzen dute A. Flitner eta K. Giel argitaratzaileek. Guk hemen nahas-mahaski jokatu dugu.

from Hobbes and Locke through to Kant as a linear one-dimensional concatenation of states of consciousness which may include such disparate elements as sensual intuitions, feelings, and instincts. This type of thinking is commonly described by philosophers of the period as the “flux” or “train” of thoughts, although Kant’s favored term is the “sensory manifold”. Humboldt accepts not only this viewpoint but also the terminology. We may speak, therefore, of two types of thinking, according to this view; a prelinguistic “pre-articulated” thinking, and a linguistic, articulated, and thus “conceptual” thinking» (Manchester, 1985, 32. or.).

1800eko irailean Humboldt-ek Schiller-i Parisetik idatzi dion gutuna hizkuntzari eta poesiari buruzko meditazio bat da, baina oraindik berritasunik ozta sumatzen da, hizkuntzaren meditazioan barneratu izana bera ez bada behintzat. Hizkuntzak «gure pentsamenduaren zati batzuk (*Portionen unsres Denkens*) bata-sunetan» biltzen dituelako ideia (1795) hitzez hitz agertzen da berriro (V, 196. Konpara Ib. 97. or.). Hizkuntza pentsamenduaren bitartekoa da halaber (*Mittel*: Ib.). Beharbada, testuinguruak eraginda, horizonte berriak apur bat iragartzen dira, hizkuntzaren kontsiderazioa poesiarekin lotzeak, eta pintura eta musikarekin konparazioak (Ib.), bide ematen baitute haren kreaizaitasun modu baten ideia iradokitzeko: hala, bitarteko sentigarri bat baino ez izan arren hizkuntza, «horren bitartez du gizakiak berdenboran bere burua eta mundua irudikatzen (*bildet*), edo hobeto, beregandik mundu bat apartatzen duelakoaren bitartez, kontziente bilakatzen da bere buruaz» (Ib.). Poetak beregandik aparteko mundu bat sortzen du, eta hizkuntzarekin sortzen du. Hizkuntza ote da mundua sortzen duena? Eta poetak bere burua poesian kausitzen duen bezala, gizakiak hizkuntzan aurkitzen ote du bere buruaren kontzientzia? Egun horietan Humboldt euskara ikasten ari da. Humboldt-en eboluzioaren bere ikerketa xehean J. Trabant-ek baisten du haren ikuspide aldakuntza —hizkuntzaren zerizana— euskararen estudioagaz eta Euskal Herria ezagutzearekin batera gauzatu dela (Trabant, 1990, 37)<sup>2</sup>. «Lehenbiziko kontrajarpena espreso hitza eta zeinu arbitrarioaren artean euskaldunei buruzko monografiaren fragmentuan (1801/02) aurkitzen da» (Trabant, 1986, 71. or.). 1806ko *Latium und Hellas* fragmentuan hizkuntzaren izaeraren gogarte sistem- atiko bat entseiatzen du, hitzetan zeinuak baino ez eta hizkuntzan pentsamenduaren tresna hutsa uste duen ikusmolde tradizionalarekin polemizatuz (II, 58.-64. or.). 1810ean, «Einleitung in das gesammte Sprachstudium», aspaldian gainditutaz ematen da hizkuntza zeinu soil gisa kontsideratzeko makurra (V, 129. or.)<sup>3</sup>; baina hain aspaldi eta hain gainditua ez du egon behar, orri batzuk geroago, gehiengoak oraindik hizkuntza bitarteko soil bezala juzgatzen duela, ikasiak eta hizkuntza ikasiak barne, salatzen baitu (V, 133. or.)<sup>4</sup>. Hala ere, posizio berriak oinarriaren konkistatua dirudien arren, *Über das vergleichende Sprachstudium* (1820) konferentzia akademikoan adibidez, oraindik borrokan —sekula bukatuko ez duen borrokan!— ikusten dugu doiago zertzelatzeko «adimenaren aktoan» (*Verstandesact*) adigaiaren eta hitzaren (hotsaren) arteko harremana, hurbiltasuna baino ez baita oraindik, bigarrentiarki erantsiaren itxura guztiaz (III, 15.-16. or.)<sup>5</sup>, eta gainera hizkuntzaren menpetasunetik libre funtzionatzen suposatzen baita gutxienez pentsamendu hutsaren esfera (matematikakoa, adibidez) (III, 16; ikus orobat 94. or.). Konferentzia horre- tan bertan objektibitatearen arazo erabakiorra, Kant-ek forma apriorikoen unibertsaltasunarekin giza adimen eta sentimenean soluzionatu duena, Humboldt hizkuntzaren bitartez ikusten dugu askaeratu nahia (III, 17.-18. or.), eta beraz guztiz adiera ezkantiarrean ulertzen (erlatibo eta historikoan!) objektibitatearen

<sup>2</sup> «Auch in dem vor den spanischen Reisen fertiggestellten Werk über Goethes *Herrmann und Dorothea* [1797-98] erscheint die Sprache noch als willkürliches, rein verstandesmäßiges Zeichen». Trabant-ek honela definitzen du hizkuntzaren balio berria: «Sprache ist nicht bloss ein Mittel, das Gedachte zu bezeichnen und anderen mitzuteilen, Sprache ist nicht bloss Zeichen, sondern Mittel der *Bildung* des Denkens, Mittel der Bildung des Selbst und der Welt, d. h., Sprache selber produziert das Denken» (Ib. 38. or.).

<sup>3</sup> «Der Irrthum ist längst verschwunden, dass sie ein Inbegriff von Zeichen von, ausser ihr, für sich bestehenden Dingen, oder auch nur Begriffen sey».

<sup>4</sup> «In der That werden die Sprachen dermassen, als Mittel zu andern wichtigeren Zwecken betrachtet, Gelehrte und Sprachgelehrte nicht ausgenommen...».

<sup>5</sup> «Dem Verstandesact, welcher die Einheit des Begriffes hervorbringt, entspricht, als sinnliches Zeichen, die des Worts, und beide müssen einander im Denken durch Rede möglichst nahe begleiten».

kontzeptua bera, hizkuntzaren menpekoea jada (III, 20). (III, 77. or. Ikus arazo bera Ib. 478.-479. or., Kawi-izkribuaren hitzaurrean). Haatik Leitzmann-ek 1822an dataturiko *Über den Nationalcharakter der Sprachen* fragmentuan berriro «bitarteko soil» (*nur Mittel*) bezala hitz egiten da hizkuntzaz, hizkuntza baino haragoko espazioak irabazteko hitzunak hizkuntzarekin egin beharra izaten duen gatazka erreparatuz, hizkuntzaren desegokitasun bat beraz pentsamenduarekin (Ib.). *Über die Buchstabenschrift* (1824) konferentzian, berriro, pentsamendua ezinezkoa dela hizkuntzarik gabe, baiesten da («da das Denken ohne Sprache einmal unmöglich ist») (III, 89. or.), baina gerxeago, hizkuntzaz neurri eta modu ezberdinetan baliatzen diren jardun intelektual diferenteak aipatzen dira, hala nola, artea eta matematika. Eskultura bat egiteko ekitaldia, esaterako, jarduera intelektuala baita ez bai gabe, baina apenas hizkuntzatik zuzenean menpekoea (nahiz eta arte obra den bezainbatean ez posible izan, orokorki hizkuntza suposatu gabe) (III, 94. or.). *Über den Dualismen*, halaber (1827), hizkuntzako dualaren erroak barnagoko kategoria edo «pentsamenduaren lege» apriorikoren batzuetan sumatzen dira (III, 137. or.)<sup>6</sup> —hizkuntza baino lehenagoko «hizkuntza» batean, hortaz—. Aldi berean konferentzia honek giza ezagutzan objektibitatearen fundamentua hizkuntzan datzala, sakontzen du (III, 139. or. eta hur.). Berdin eta esplizito asko, azkenik, eboluzioaren erreparatze hau amaitzeko, *Über die Verschiedenheit* bietan, Kawi-izkribuaren hitzaurrean bereziki (1830). Hitzen sorrerarekin —esaten da azken honetan— «aplikazioa ulertzen da kategoria logiko orokor batzuen: egintza, eginiko, substantzia, propietate, etab. [hizkuntzaren forma apriorikoak!], erroei eta oinarritzko hitzei» (III, 421.-422. or.). Beste leku batean: hizkuntzak erro bat atzizki batekin substantibo bezala markatzen duenean, atzizki hori kontzeptuaren erlazioaren marka materiala da substantziaren kategoriarekiko (III, 607. or.). Hizkuntza baino lehen —barrenago, jatorrizkoago— pentsamenduaren mundu kantiar handi bat dago, beraz, autonomia, hizkuntzaren beraren aurrealdintza.

Zeinu soilaren tradizio aristoteldarraren aldean —aurka—, praktikan Humboldt-ek bere ikerketa antropologiko-linguistikoetan ikasi duena, pentsamendua eta hizkuntzaren arteko lotura estu-estua da. Arrazoiz, berak lotura hori nabarmendu ohi du, maiz tonu polemikoan. Baina, azpimarratzen badu, ez du absolutizatzen eta, esaldiak esaldi, pentsamendu eta hizkuntzaren identifikaziora edo nahaspenera inoiz ez da egiaz iristen. Hizkuntzaren eta pentsamenduaren artean elkar lotura, elkar itsaspen bat dago (*Zusammenhang*) (III, 428. or.). Hitzean adigaiak eta hotsak, idealak eta sentigarriak, bat egiten dute: baina biok hitzaren baitan bi unitate berezi (III, 448. or. [«eine doppelte Einheit»]), bi «menbrua» diferente dira, bi mutur edo polo nolobait<sup>7</sup>. Polo bat ezin da eman bestea barik, baina ez da bestea; zein bere gelditzen da beti bakoitza. Berdin hitzean adigaiak eta hotsa: bata bestearekiko erlazioan dira direna, ezin izango lirerateke bestela berak; baina, azken funtsean, biak batezina dira beren naturaz (III, 478. or.)<sup>8</sup>; eta, hitzak kontzeptua (izpiritua) preso bezala baitauka, etenbako teinkan biziko dira, beti elkarrekin borrokan, borroka horretantxe ere izpirituak hizkuntzaz baliatu beharko duela (III, 478.-479. or.). Horregatik, kontzeptuaren eta hotsaren batasuna hitzean fakto bat da eztabaida ezina, eta enigma bat esplika ezina (III, 560.-561. or.). Humboldt-en adierazpenak dogmatikoak ez beste guztia dira; zalantza-koak, bilaketazkoak, kontraesantsuak ematen baitute askotan. Kawi-izkribuaren hitzaurrean bertan, Humboldt-en azkeneko pentsamenduan beraz, hizkuntza eta pentsamenduaren batasun estua, batetik «hizkuntza da organo eratzailea pentsamenduarena» bai espen beti aipaturaino azpimarratzen da («Die Sprache ist das bildende Organ des Gedanken») (III, 426. or.). Aldi berean, ordea, honela azaltzen da hori: «aktibitate intelektuala, guztiz izpirituala, guztiz barnekoa eta nolobait aztarnarik utzi gabe iragaten dena, hizketaldiko hotsean kanpotar eta zentzuentzat hautemangarri bihurtzen da», hau da, hizkuntzak pentsamendu autonomoki osatu baten zeinu

<sup>6</sup> K. Giel eta P. Mattson argitaratzaileek (III, 463. or.), Humboldt-ek, Fichte-ren modura (baina honen influentzia ez ei dago erakutsia), eta Kant-en kontrara, kategoriak ulertzen dinamikoa daukala oharitzen dute.

<sup>7</sup> Horrela itzultzen du *Glied* (menbrua) A. Agud-ek itzulpen espainolean (ik. Humboldt, W. von, *Sobre la diversidad de la estructura del lenguaje humano y su influencia sobre el desarrollo espiritual de la humanidad*, Barcelona, 1990, 90. or.).

<sup>8</sup> «Die Bezeichnung des Begriffs durch den Laut ist eine Verknüpfung von Dingen, deren Natur sich wahrhaft niemals vereinigen kann».

agerrari soila ematen du (esan ere noizbehinka esaten da hizkuntzari buruz, pentsamenduaren erreminta dela —«*Werkzeug*»: III, 462. eta 674. or.—; eta pentsamenduaren lehenagokotasuna espreski baietsia dago harekiko: III, 468. or., «dem Articulationssinne vorausgehend»). Ordea, Humboldt-ek konklusio honetara ekartzen ditu aurreko bi esaldiak, biak silogismo baten premisa handia eta txikia izan balitu bezala: «Hura [aktibitate intelektuala] eta hizkuntza bat dira, hortaz, eta elkarrengandik banaezinak» (Ib.)<sup>9</sup>. «Ukaezinezko zerikusia dago hizkuntzaren egituraren eta aktibitate intelektualeko beste modu guztien atarramenduaren artean», ziurtatzen da behin III, 413. or.)<sup>10</sup>. Beste batean, herri baten «beste abantaila intelektual» —espreski ez hizkuntzaren peko— batzuez mintzatzeko problemarik ez da egongo (III, 655. or.)<sup>11</sup>. Eta hizkuntzan bertan parte intelektual hutsa, izpirituarena bakarrik omen dena ekarria, eta parte sentigarria bereziko dira (III, 464.-465. or.). Barneko ideiak, agertzeko, zailtasun bat gainditu behar duela esaten da, hotsarena, eta ez duela lortzen zailtasuna beti berdindu egoki gainditzea (III, 459. or.), etab.

Hitza/hizkuntza analizatzen badugu, parte bat intelektual edo ideal hutsa aurkitzen dugu, giza izpirituaren aktibitate berezkoarena soilik izan daitekeena ekarria. Giza izpiritu unibertuala baita, pentsa daiteke, parte honek berdina izan beharko lukeela hizkuntza guztietan. Eta izan ere, eraberdintasun handiagoa izan ohi da parte honetan hizkuntzen artean (III, 464. or.). Ez berdintasun osoa, hala ere. Diferentziak (ez luketena egon behar teoriarik) ulertzeko, Humboldt-ek bereizi egiten du hizkuntzan, a) parte intelektuala eta, b) parte ideal hutsa (apriorikoa). Parte ideal huts hau, adimenaren (*Verstand*)<sup>12</sup> konektapen soilena, formal-logikoa da, eta, besteak beste, arau gramatikaletan gauzatzen da, horiek printzipioz zelangoak izan behar duten, «kontzeptuetatik [kategorietatik] dedukzio soil bitartez» asma baitaiteke, adibidez denbora zein/zenbat alditan eta modutan antolatu behar den aditzean espresio beteginerako<sup>13</sup>. Hizkuntza guztiek aldi eta modu berberak ez badituzte (sanskritoak eta grekoak, esaterako), diferentzia hauek hizkuntza batetik bestera «konbinazio» okerren edo ezaskien ondorioak baino ez dira (III, 465. or.). Konbinazioen desegokitasunaren arrazoiak, berriro, erakarpen fonetiko nahastaileak izan litezke, edo hizkuntzaren sorreran bertan izpiritu (nazional)ak nagusiago izan dituen bestelako arretak, edo indar falta, etab. Egia da, gero hizkuntzek euren egiturako huts edo eskasia horiek mila modutan gainditu ohi dituztela, falta dituzten formei beste nolabait askaera emanez; baina horregatik ez du uzten haiek hizkuntzaren bete-betegabetasun edo inperfekzioak izatea (III, 466. or.)<sup>14</sup>. Humboldt-en ikerketa-molde konparatiboan, hizkuntzen perfekzio eta inperfekzioen gaia berrirokorretako bat da. Hemengo inperfekzio hauen kasuan, hizkuntza ez da pentsamenduaren exijentzia logiko edo egituralak osoki betetzera iristen, edo hizkuntza bat hobeto iristen da beste bat baino, edo okerrago. Baina eskuarki diferentziak hizkuntzen artean ez dira izaten nabarmenak parte ideal hutsean. Diferentziak oso handiak izan gabe ere, besterik da a) zatian, hizkuntzaren parte oroharki intelektualean, kontzeptu ez hutsean sorreran adibidez, adimenaren soil ez direnak, ez eta kontzeptu huts edo kategorietatik eratorriak. «Irudimenak eta sentimenak [*Gefühl*] errepresentazio indibidualak sortzen dituzte, non berriro nazioaren karakterea manifestatzen baita, eta hor, individual orotan bezala, azkengaberaino baitoa, esaniko hori determinazio beti ezberdinetan nola aurkez daitekeen, moduen ugaritasuna» (III, 464.-465. or.). Parte intelektual honetan, adimen soilaz gain, fakultate sentigarriak dei genitzakeenek, interbenitzen dute: herri baten irudimenak, sentimenduak (ez daukagu apika gehitu beharrik,

<sup>9</sup> «Sie und die Sprache sind daher Eins und unzertrennlich von einander».

<sup>10</sup> «Zwischen dem Sprachbaue aber und dem Gelingen aller andren Arten intellectueller Thätigkeit besteht ein unlösbarer Zusammenhang. Zerikusi hori guztion iturri den izpiritu bakarri zor zaio.

<sup>11</sup> «Darum stehen auch Sprache und Civilisation durchaus nicht immer im gleichen Verhältniss zu einander» (Ib. 398. or.).

<sup>12</sup> Esan beharrik ez, azpian beti Kant-en berezuntasun dagoela, arrazoimen (*Vernunft*), adimen (*Verstand*) eta sentimenduen artean, bakoitza bere zereginarekin eta balio eremuarekin.

<sup>13</sup> Metodo hau erabiltzeko ezintasunaz kontzeptuentzat arrunt, horiek a priori kategorietatik deduzituz, ikus Ib., 480. or. Bide batez, Humboldt-entzat modu kantiarrean kontzeptuak oro kategorien pekoak eta haien gauzapean direla, suposizioa egiaztatzen da berriro.

<sup>14</sup> «Darum bleiben aber solche Fälle nicht weniger fehlerhafte Unvollkommenheiten und zwar gerade in dem rein intellectuellen Theile der Sprache».

irudimena, sentimentua, ez direla herri baten baldintza geografiko, sozial, kulturelekin zerikusirik gabe egoten). Horregatik kontzeptu intelektualek berek, hizkuntza guztietan funtsean berdinak izan arren (eremu logiko batean), ez dute izaten balio berdina batean ala bestean, eta ez dute berdin ispilatzen mundua.

Nola sortzen da kontzeptu bat? Kontzeptuak adierazten edo ispilatzen duena ez da zentzuei aurkezten zaizkien gauzen kanpoko mundua, haien presentzian buruan eratzen den mundua baizik. «Hitza [kanpoko objektuen izenen kasuan ere] ez da zentzuei aurkezten zaien zerkiaren balioberdina, baizik haren adierarena hizkuntzazko sorkuntzaren bitartez hitza asmatzeko une jakinean. Hau da zerki berentzako espresioen aniztasunaren iturri printzipaletako bat; eta sanskritoan, adibidez, elefantea behin “bi bider edalea” deitzen bada, beste batean “hagin bikoia”, bestean “esku batez hornitua”, horren bitartez, adierazia beti zerki bera baldin bada ere, beste hainbeste adigai ezberdin dira zeinuztatuak. Hizkuntzak inoiz ez baititu aurkezten zerkiak, ezpada beti hizkuntzazko sorkuntzan izpirituak berekisa haiei buruz eratzen dituen adigaiak» (III, 468. or.). Adigaien hizkuntzazko kreazioan —berdin, ezagutzan— diharduen izpiritua ez da adimena bakarrik. Kant-entzat ez bezala, Humboldt-entzat ezagutzako jarduera errealean zentzuak eginkorrak dira (eta irudimena, sentimentuak), adimena bezalaxe; hots, subjektu osoa da ezagutzako subjektua eta subjektu osoak hartzen du eginkorki parte. «Jardun subjektiboak pentsamenduan objektu bat eratzen du. Zeren eta inolako errepresentazio jenerorik ezin da, jada egon badagoen objektu baten soegite harkor soiltzat jo. Zentzuen jardunak izpirituaren barneko ekintzarekin sintetikoki elkarlotu behar du, eta errepresentazioa elkarlotura honetatik jaregin egiten da, objektu bihurtzen da, indar subjektiboaren begiz begi, eta, halakotzat era berri batean hautemana, atzera hartara itzultzen da. Honetarako, baina, noraezekoa da hizkuntza. Zeren eta hartan ahalegin izpiritualak ezpainen artetik pasabidea irekitzen duelarik, norberaren belarrira itzultzen da bere ekoizpen propioa. Horrela errepresentazioa objektibitate zinezkotara pasarazten da, horregatik subjektibotasuna galtzeke. Hori hizkuntzak bakarrik egin lezake; eta hori gabe, hizkuntzak diharduenoro isil-isilik baina beti gertatzen den objektibitate subjektura itzulkor hori gabe, ez da posible kontzeptuaren eraketarik, beraz egiazko pentsamendurik. Hala bada, gizaki eta gizaki arteko komunikazioarekin zerikusirik gabe ere, hitz egitea ezinbesteko baldintza da norbanakoaren pentsamenduar-entzat bakardade itxian bertan» (III, 428.-429. or.). Hizkuntzarik gabe «ezein kontzeptu ez da posible, beraz ezta zerkirik ere arimarentzat, edozein [zerki] kanpokok berak ere adigaiak artekoturik bakarrik erdiesten baitu harentzat izate osoa» (III, 433. or.)<sup>15</sup>.

Itzultzen bagara epistemologia klasikora, termino batzuen —edo, hobe, planteamendu batzuen— eki-bokotasunarekin topatzen gara. Descartes-entzat pentsamendua dira gogoeta, irudikapena, baiestea edo ezestea, ulertzea, asmo izatea, desiratzea, haserretze edo beldurtzea, oroitzea, hotza edo beroa sentitzea, maitatzea, ikustea, etab.<sup>16</sup>; pentsatzailea pentsatzaile (izpiritu) den bezainbatean ukitzen edo afektatzen duen dena ideia da, zentzu zabalean —«gogoaren pertzepzioak» esan genezake Hume-rekin—<sup>17</sup>, hori berdintsu baita Locke edo Hume-rentzat ere, aldeak alde. Ideia, zentzu hertsiaigoan, «errepresentazio» bat da zerbaitena, materiala edo ezmateriala (zuhaitza, askatasuna). Beraz, ideia bat da nire errepresentazioa, hor aurreko zuhaitz horren oraintxe (sentigarriro) daukadana, irudi edo inpresio singularra (agian pasiboa), eta munduko zuhaitz guztien (abstraktuki) noiznahi daukadana, kontzeptu orokorra (zerkiei erantzia eta adimenez landua izan beharra duena). Kuestioa da: zer ikusitan daude biok elkarrekin? «Nire pentsamenduen artean —argitzen du Descartes-ek— batzuk gauzen irudiak bezalakoaxeak dira, eta hauei dagokie zehatz-mehatz ideia izena: adibidez, gizakiaz, kimeraz, zeruaz, aingeru batez edo Jainko beraz pentsatzen dudanean. Beste pentsamendu batzuek beste forma batzuek izaten dituzte: adibidez, nahi dudanean, beldur

<sup>15</sup> Eta Ib., 217. or.: «So ist die Sprache ein nothwendiges Erforderniss zur ersten Erzeugung des Gedanken, und zur fortschreitenden Ausbildung des Geistes».

<sup>16</sup> Descartes, R., *Metodoari buruzko diskurtsoa. Meditazio metafisikoak*, Klasikoak, Bilbo, 1997, 133.-134. or. (MM, II). Gogora Spinoza-ren definizioa (Et. II, def. III): «Ideia deitzen dut Izpirituaren kontzeptua, Izpirituak eratzen duena, pentsatzen duen gauza delako».

<sup>17</sup> Hume, D., *Giza ezagutzari buruzko ikerketa*, Klasikoak, Bilbo, 1993, 49. or.

<sup>18</sup> Descartes, R., *loc. cit.*, 141. or. (MM, III).

naizenean, baieztatzen dudanean, ukatzen dudanean»<sup>18</sup>. Gizakia, kimera, pentsatzen ari naizen bitartean, ideia horiek denek badute errealtate bat, pentsamenduan: forma bat, zati bat dira nire pentsamenduan. Descartes-ek: «j'appelle généralement du nom d'idée tout ce qui est dans notre esprit, lorsque nous concevons une chose»; Locke-k: «whatsoever is the object of the understanding when a man thinks». Ideien tokia nire pentsamendu edo kontzientzian dago. Baina gizakia, kimera, joan den astean pentsatu nituen, eta orain berriro pentsatzen ditut: gauza bera al dira? Bitartean ez dut haietan pentsatu: existitzen jarraitu al dute?, zer izan dira bitarte horretan? Eta zuk, hark, urliak pentsatzen duten, edo behiala pentsatu zuten gizakia, kimera, eta nik pentsatua, gauza bera ote dira? Zer dira ideiak berak, objektiboki, niregandik menpegabe eta beren baitan? Non datza ideien beren errealtate beregaina, iraunkorra, berdin da pentsatzen diren edo ez diren, edo subjektu diferenteek pentsatuak diren? Hizkuntzan datza, erantzun du Humboldt-ek. Hizkuntzak pentsatzen ditu. Mundu ezagutuaren eta ezagutzailearen munduaren artean, hizkuntza hirugarren mundu bat da, bitarteko mundu bat haien bien artean, biak biltzen dituen. Mundua hizkuntzan dago. Ideien objektibotasuna hizkuntzan dago.

Hizkuntzak eramaten du, subjektuari nahaski aurkezten zaion zerki anonimoa, objektu jakin bat izatera arimarentzat. Hau da, mintzaera kantiarrear, hizkuntzak bihurtzen ditu gauzak objektu, zerbaitek zer adigarriki eratu. Bestela esan, hizkuntzak jasotzen ditu inpresioak objektibitate, hau da, arimarentzat objektuak izatera, hots, arimaren gain, kanpotikoa bezala, botere bat, «eragipen arrotz bat» bihurtzera (III, 437. or.). Arimaren gainean honezkero botere bat bilakatua den objektu hori —kontzeptua— hitzean errotzen da. Humboldt-ek arretarik handienaz erakusten du nola subjektiboa eta objektiboa ez diren kontrarioak bezala begiratu behar. Aitzitik, objektiboa subjektuan bakarrik eman daiteke eta ematen da. Beraz, kontzeptua beti da subjektiboa nahitaez (eta horrela bakarrik objektiboa). Kawi-izkribuaren hitzaurreko beste pasarte batean berriro irakurtzen dugun legez: hizkuntzaren bai sorreran eta bai erabilera arruntan, gauza edo zerkien hautemaketa subjektibo guztia artekatzen da. Hautemapen (subjektibo) horretatik sortzen baita hitza; hori «ez da erreproduzio bat zerkiarena bere baitan, ezpada honek ariman piztarazitako irudiarena (*Bild*). Hautemaketa objektibo orori erremedio barik nahasten baitzaio subjektibitatea, horrela, hizkuntzatik aparte ere, giza banakotasun bakoitza mundu ikuskerako ikuspuntu propio bat kontsidera daiteke. Baina hizkuntzarekin are gehiago bilakatzen da hori, hitzak, arimaren begiz begi (...), autosignifikazio eraskin batez berriro objektu bihurtu, eta berekitasun propio bat gehitzen baitu» (III, 433.-434. or.). Giza ezagutza beti subjektiboa da: lehenik, subjektiboa delako nolabait adimena bera; baina batez ere hizkuntza ez delako — eta ezagutza— adimenaren obra bakarrik. «Hizkuntzetan adimenaren asmoa artekogabeki kreazioan ariz suposatzen baldin bada, hori, nire sinismendu minenaren arabera, errepresentazio ekibokatua da beti. Aurreneko eragilea hizkuntzan edonola ere izpirituan ikusi behar den neurrian, han dena da noski asmoa eta hots artikulatuaren igorpena ere asmoa deitu liteke. Haatik, bidea, hark nola jotzen duen, beti bestelakoa da, eta kanpoko inpresioen eta barneko sentimentuen elkarreragintzatik hozitzen dira haren eraketak [adigaiak], hizkuntzaren xede orokorrari beha, honek subjektibitatea eta objektibitatea elkarlotzen baititu mundu ideal, baina ez erabat barneko ez erabat kanpoko baten kreazioan» (III, 496. or.).

Subjektibitate modernoa, Descartes-ek gero praktika nagusitua zena filosofian bezala zientzian, Kant-ekin autokontzientzia kritikora heldu bada, Humboldt-ekin, hala gomutarazten dute gaurko filosofo hermeneutikoek, nahiz ez duen berehala jarraipen handirik izango, erradikalitasun batera ailegatu da, pentsamendua hizkuntzarekin bateratu duenean, beste halakorik XX. mendean bakarrik, haren pizkundeagaz batera hain zuzen, ikusiko dugun bezalakoa. Hizkuntza —beraz, kontzeptua, ezagutza— azken finean, subjektiboa ez ezik, kreazio indibiduala da. Hizkuntza ez da hor dagoen ezer, hizketan egiten da egin, sortzen da beti berriro. Eta bakoitzak bere modura sortzen dizu. Esan nahi da, hizkuntzak, hizketak (ez bakarrik, baina beti) karaktere indibiduala dizu. «Norbanakoan erdiesten du hizkuntzak bere azkeneko doitasuna. Inork ez dizu hitz batean zehatz eta mehatz bestearen gauza bera pentsatzen, eta diferentzia hori,

txikiena izanik ere, zirkulu bat uretan bezala, hizkuntzaren zabal guztian dardaritzen da. Horregatik, ulertze oro ezulertzea da beti aldi berean, adostasun oro aldi berean pentsamendu eta sentimentuekiko aldentasuna bata besteagandik» (III, 439. or.). (Apur bat bestelako bide batetik, baina ja Locke-k igarria zuen, nola likido edo urre bezalako hitz arruntekin ere bakoitzak berea ulertzen/pentsatzen duen, edo hitz berdinarekin ideia diferentea duen; zer esanik ez, materia edo, kontzeptu subtilagoekin)<sup>19</sup>.

Hizkuntzak karaktere nazional bat ere badizunez, «hitzak hizkuntza ezberdinetan, oro har kontzeptu berberak zeinuztatzen badituzte ere, inoiz ez dira hala ere egiazki sinonimoak» (III, 581. or.)<sup>20</sup>. Diferentziak, zergauza gorputzekoen izendapenetan beretan sumatu ahal izaten direnak, are gehiago nabaritzen omen dira kontzeptu edo balio izpiritualetan (III, 582. or.)<sup>21</sup>.

Alabaina, tradizio filosofikoan ez gutxiago interesgarria eta ezin ahaztuzkoa giza ezagutzaren objektibitatea hizkuntzan —intersubjektibitatean— oinarritzeko Humboldt-en saioa izan daiteke. Pentsamenduaren munduan kontzeptua bakoizten duena, zinez indibiduo bihurtzen duena, hitza da: hitzak damaio determinazioa, tinkotasuna. Baina ez du egiten hori ematea bakarrik: beretik ere ematen dio hitzak —artikulazioak, hotsak— adigaiari, harreman sare zabal batean ezarritik beste asko hitz antzeko esanahi, edo soil antzeko soinuokoen, etab.; hitzari atzekiak zaizkion konotazio emozionalak erantsiz, kontzeptuaren objektuaren hautespenari berari edo sentipenari tankera bat emanez, etab. Zeozer hitz batekin izendatzen dugunean, gudan ez da pizten gauza horren ideia hutsarena errepresentazioa, ezpada norberaren, nazioaren, gizadiaren gauza horren hautemaketa, emozio, esperientzia milurtetakoak, hitzak laburbiltzen duena. Hori ez da hainbeste nabaritzen kasu irlatu batean eta behin behatzen bada. Baina hizkuntza osoak behin eta berriro han eta hemen sortzen duen inpresioaren erregularitasunak eta eraginaren betiereko itzulerak, azkeanean errepresentazioen masa guztiak hizkuntzaren «kolorea» hartzea eragiten dizu (III, 17.-18. or.). «Hizkuntzen ikasketaren zinezko garrantzia hizkuntzaren partizipazioan errepresentazioen sorreran (*Bildung*) datza. Horrekin dena esana dago, zeren eta errepresentazio horiek baitira, euren batuketak gizakia osobetetzen dutenak (...). Hizkuntzaren partizipazioa errepresentazioetan ez da metafisiko soil, adigaiaren existentzia baldintzen duena; haren moldearen gisan ere eragiten du eta bere marka ezartzen dio hari. Kontzeptuaren baitako diferentzia objektibo guztiarekin ere, haren gainean hizkuntzak beti bere karakterraren maneran eragin daragiela, errepresentazioen masa guztiari berarekin erlacionaturiko molde eraberridina eransten dio. Berak bidatzen du pentsamenduen eraikera barne nahiz kanpo solasean, eta hala ideien elkarketa modua ere erabakitzen du, honek atzera eragiten baitu edozein aldetarantz gizakiaren gainean» (III, 153.-154. or.). Izan ere —gehitzen du orain— gizakia ez da mundura etorri izpiritu hutsaren moldeko, pentsamendu egina gero hotsekin janzen duena, baizik kreatura lurta hotsetako bezala, haren hotsetatik, miragarriro, itxuraz sistema kaotiko baten bidez, handi, garbi eta izpiritu oro garatzen dela. Gizakiaren naturari hiztuna izatea dagokio, hori da bere esentzia, eta esentzialki den hiztun bezala pentsatzen du eta

<sup>19</sup> Locke, J., *loc. cit.*, II lib., 108. or. (III, 9, 17. or.): «Eta honen ondorioz hitz horren [“urre”] esanahiak oso zalantzarria izan behar nahitaez, zeren substantzia berean pertsona ezberdinek propietate ezberdinak hautematen dituzte (...); eta gehitu nezakeela uste dut inork ez dituela guztiak hautematen». Ez da ulertu behar, urre hitzarekin ez dutela denek gauza bera pentsatzen, ezpada gauza bera da bakoitzak bere modura pentsatzen duena (gauzaren propietate diferentek aintzat hartzen dituelako bakoitzak: batek kolorea, besteak pisua, fundigarritasuna, etab.). «Eta horregatik gauzen deskribaketa oso inperfektuak ditugu eta hitzek ziurgabetasun handiko esanahiak dituzte». Materiaren adibideaz, ikus Ib., 120.-122. or. (III, 10, 15. or.).

<sup>20</sup> Ik., orobat, II, 63. or.: «(...) Es lässt sich daher mit Grunde behaupten, dass auch bei durchaus sinnlichen Gegenständen die Wörter verschiedener Sprachen nicht vollkommene Synonima sind, und dass wer *hippos, equus* und Pferd ausspricht, nicht durchaus und vollkommen dasselbe sagt». Are gutxiago objektu moralen izen abstraktuekin.

<sup>21</sup> *Agamennon*-en itzulpen hitzaurrean, zerki materialen —zentzuek zuzenean ematen dituztenen— izenetan izan ezik, seinaltzen ziren diferentziak hizkuntzen artean: «(...) dass, so wie man von den Ausdrücken absieht, die bloss körperliche Gegenstände bezeichnen, kein Wort Einer Sprache vollkommen einem in einer andren Sprache gleich ist». «Wie könnte daher je ein Wort, dessen Bedeutung nicht unmittelbar durch die Sinne gegeben ist, vollkommen einem Worte einer andern Sprache gleich seyn?», ik. V lib., 137-138. or. Geroago (ikus III, 21. or.) zer horietan ere hainbat diferentzia oharituko du hizkuntza askotan (hizkuntzak, esan beharrik ez dago, denak ez dira beti kultur maila eta, nolabaik esan, garai berdinetan egoten). *Arazoa* grekotik alemanera egoki itzultzeko zailtasuna (ezintasuna) da.



jarduten du. Hizkuntzak harengan eragina duela esatea hura hizkuntzan geroz eta bere buruaren kontzientzeari bilakatzen ari dela esatea adina da. «Hizkuntza gizakiarekin horrela identifikatzen bada, ordea, hori ez du egiten gizaki orokorki eta metafisikoki pentsatuagaz bakarrik, baizik zinez presentearekin, biziarekin, lurrekotasunak zirkunstanzia lokal eta historiko guztien bidez estuki baldinduarekin, ez bakanarekin, berau hangoa kontatzen den nazioarekin bakarrik ez, baizik herri guztiekin eta izandako belaunaldi guztiekin, horiek izan bitez lokarriak nahi bezain urrun eta artekotuak, berarekin hizkuntz kontaktoan egon izan direnekin. Hartara hizkuntza kanpotiko botere bat (*Macht, Zwang*) bilakatzen zaio gizaki bakoitzari eta nazio bakoitzari, baina halako moldetan, non hotsik arrotzenez ere ahaidetasun min baten soinua ezagutuko baitu»<sup>22</sup> (hau dena hizkuntzaren naturaz eta karaktere nazionalaz jardutean osokiago argituko da). Leibniz-en monadak bezala, hizkuntza guztiak guztiekin harremanduak daude, guztiak guztiengan eragiten eta eraginak izaten ari direla, zuzenean ala artekotuki. Itsasoak bezala egiten baitu hizkuntzak, herriak banatu eta aldi berean elkartu (III, 158. or.); ezerk ez du gizadia gehiago eta sakonkiago batzen, banatzen duen hizkuntzak berak baino (III, 150. or.). Gizadia dagoenez gero, talde, adin, sexu, herri, nazio guztiak hizkuntzaren bidez elkarri eragiten ari dira, gizatasunaren mundu ideal amankomun bat denen artean eraikitzen.

Objektibitatearen fundamentazioa hizkuntzak zapalda guztietan burutzen du, indibidualen, sozialean eta gizaditar edo unibertsean.

Maila indibidualen hori zelan egiten duen goian ikusia dago, aipatu dugunean objektua nola sortzen den zentzuen ekarpena eta izpirituaren ekintzaren sintesitik, hau hizkuntzak ahalbidetzen baitu (III, 428.-429. or.). De fakto, baina, hizkuntza —eta ezagutza— jendartearen garatzen da, ez bakartasunean, «eta gizon-emakumeak, bere hitzen ulergarritasuna besteengan entseiatuz frogatutakoan bakarrik ulertzen du bere burua. Norberak eraturiko hitzak aho arrotzetik atzera soinugiten badigu, objektibitatea gehitu egiten da, izan ere. Subjektibitateari, aldiz, ez zaio deus osten, gizon-emakumea beti bat sentitzen da-eta gizon-emakumeagaz; ezpada hori ere gehitua gelditzen da, hizkuntza bihurturiko errepresentazioa ja ez baita gehiago subjektu bakar baten edukitasuna. Besteengana pasatuz gizajende osoaren amankomuna denari lotzen zaio, bakoitzak haren modifikazio bat baitauka, eskaera bat dakarrena besteen bitartez osaketarena» (III, 429. or. Ik. orobat 196. or.). Banakoa ez da gizajendearen agerkeria —modifikazioa, esaten du Humboldt-ek: gizatasunaren «modu egina»— partikular bat baizik, halako bezainbatean ezaskia giza naturaren osoa adierazteko, bere buruaren osaketa besteengan bilatu beharra duena hortaz, guztien baturak bakarrik osatzen baitu gizajendea. Banakoen arteko guztien elkar osaketa hori hizkuntzaren ematen da nagusiki. «Hizketa oro, sinpleenetik hasita, elkarlotze bat da bakarka sentituarena gizadiaren natura amankomunari» (III, 430. or.).

Gizakia da izaki bat naturan, naturatik etena, berak egin beharra daukana bere lotura munduarekin: horixe da hizkuntza. Hizkuntza lotura-modu berezia da, berak egiten duena baita, etena gaintitu eta hor utzi, ez ezabatu; hots, gizon-emakumea munduarekin elkartu bai, baina salbatuz haren eznaturaltasun propioa, askatasuna baita hori. Munduarekin zubia egin, hizketan egiten da (norbere buruagaz berbetan denean ere); komunitatearekin batean, hortaz. Baina bakoitzak bere zubia —ezagutza— egiten du. Hitz batean nik bildua dudan munduaren ezagutza edo irudia, enea soil da: hitz hori entzuleari esaten badiot, hotsak ez dio transmititzen nire (munduaren) irudia, baizik eragiten dio kilikadura bat, pitz dezan gogoan, berak hots horrekin josten duen bere irudia; eta (esangura «berdinean») erantzuten didalarik, egokitasuna berretsia da ene irudiarena berearekin (hein batean). Gure ezagutza edo irudion egokitasuna elkarrekiko, hori da gure ezagutzaren objektibotasuna. Nik hizkuntzarekin zubiginez eraiki dudan munduaren ezagutza edo egiak («*adaequatio rei et intellectus*»), balio objektiboa erantzunak berretsia izatean erdiesten du. Alabaina,

<sup>22</sup> *Ib.*, 27. or. (*Zwang*), 155. or. (*Macht*). Ikus, orobat, 225. or. («von der Menschheit in gewisser Art unabhängige Macht»), 227. eta 437.-438. or. («selbständige Macht», «die Macht der Sprache»).

entzu-erantzulearen irudia (kontzeptua) bere edukian inoiz ezin baita osoki esalearen berdin-berdina izan, eta viceversa —honek pentsamenduaren betiko askatasuna ziurtatzen du: bakoitzak bere hizkera du, horregatik—, baizik eta via elkarrizketa elkar bilatu, hurbildu, osatu egin beharko dute behin eta berriro, elkar ulertzeko. Ezagutzaren biontzako balio objektiboa biok egin-eginez joan beharreko eginkizuna da.

Honekin, esantsua dago objektibitatea —Humboldt-en zentzuan— ez dela puntu finko batean erdietsi eta bukatua gelditzen den zerbait, baizik prozesu etengabe bat, helburu bat<sup>23</sup>, hori ari dira banakoak zein nazioak eta gizadi osoa eraikitzen elkarlanean, izpirituaren lan azkenbakoa. Objektibitatea egin-eginez doa giza historian. Antzinako eta oraingoek, herronka eta klase guztiek, nazio eta jende, temperamentu eta izpirituzko joera orok, azken finean gizadi osoak, beren errepresetazioak hizkuntzan bategiten baitituzte, «subjektibitatek objektibitateira iragaitzako puntu handia hizkuntza da» (III, 18. or.). Hizkuntza bakoitza munduaren ikuskera (parzial) bat denez gero, «ezagutu ahalgarriaren suma, giza izpirituak landu ahal duenaren alorra bezala, hizkuntza guztien artean, eta haiengandik menpegabe, erdian dago; gizon-emakumeak ezin du esparru objektibo huts honetara bestela hurrandu, bere ezagutzeko eta sentitzeko moldean baino; bide subjektibotik, hortaz. Non eta doi-doi hantxe, ikerketak puntu goren eta sakonenak ukitzen dituenean, bere gaitasunaren akabuan aurkitzen da adimenaren erabilera mekaniko eta logiko, berekitasun partikular orotatik errazkien bereiztekoa, eta barneko hautemapen eta sorkuntzaren egikera bat agitzen da, horretatik ageri gelditzen den guztia baita, egia objektiboa indibidualitate subjektiboaren indar guztitik hozitua dela. Hori hizkuntzarekin eta haren bitartez bakarrik da posible. Haatik, gizakiarentzat hizkuntza, nazioaren eta antzinatearen obra gisa, zerbait arrotza da; alde batetik, hark lotua dago; beste aldetik, ordea, lehenagoko belaunaldi guztiek han ipini dutenaren bitartez aberastua, indartua eta sustatua. Ezagutu ahalgarriari buruz buru subjektibo gisa ageri bada, gizakiaren aurrez aurre objektibo gisa altxatzen da. Zeren eta bakoitza gizakiaren natura orokorraren harribitxia baita, eta gizadiaren subjektibitatearen zantzu osoa guztien multzoak ere inoiz ezin eman duen arren, alabaina etengabe jomuga honetara hurrantzen ari dira hizkuntzak. Gizadi osoaren subjektibitatea, berriz, zerbait bere baitan objektibo bihurtzen da» (III, 20. or.).

Azken batean dialogoak, hots, pentsamendua egiten duen berak, gauzatzen du objektibitatea: izpirituaren eta materiaren dialogoak, begien eta belarriaren arteko dialogoak, gizon-emakumearen dialogo isilik bere buruarekin, nire eta zure artekoak, belaunaldien, nazioen, hizkuntzen artekoak, gizadiaren eta munduaren arteko dialogoak. Hizkuntza bitartekari da alde guztietara (V, 122. or.). E. Cassirer-ek, arrazoiz, Leibniz-en tradizioan txertatzen du ikusmolde hau: «Para Leibniz el universo sólo está dado reflejamente a través de las mónadas, y cada una de ellas ofrece la totalidad de los fenómenos desde un punto de vista individual; pero, por otra parte, precisamente la totalidad de estas perspectivas y la unidad entre ellas constituyen aquello que llamamos objetividad de los fenómenos y realidad del mundo fenoménico. En forma parecida, cada una de las lenguas se torna para Humboldt en una cosmovisión aislada y sólo la totalidad de estas cosmovisiones constituye el concepto de objetividad que nos es asequible. Así se comprende que el lenguaje, frente a lo cognoscible, parezca subjetivo y, frente al hombre considerado como sujeto empírico-psicológico, se presente como objetivo. Pues cada lenguaje es un eco de la naturaleza universal del hombre»<sup>24</sup>.

<sup>23</sup> Trabant, J., 1986, 64. or.: «Denn nur in der Reziprozität des Sprechens kann —in infinitesimaler Annäherung— jenes Ziel der Übereinstimmung erreicht werden. —Das Erkennen der Wahrheit wird damit eine gemeinsame Bemühung der Sprechenden, es ist wesentlich sprachlich, nicht ein einsames Schauen der Wahrheit, die dann nur noch *post festum* bezeichnet und lehrend mitgeteilt zu werden braucht».

<sup>24</sup> Cassirer, E., *Filosofía de las formas simbólicas*, Fondo de Cultura Económica, México, 1979, 112.-113. or.

## BIBLIOGRAFIA

### 1. Oinarriak

Humboldt, W. von, *Werke in fünf Bänden*, hgb. von A. Flitner und K. Giel, Wissenschaftliche Buchgesellschaft, Darmstadt, 1988.

### 2. Lagungarria

Borsche, T., *Sprachansichten. Der Begriff der menschlichen Rede in der Sprachphilosophie W. von Humboldts*, Klett-Cotta, Stuttgart, 1981.

Cesare, D. di, *W. von Humboldt y el estudio filosófico de las lenguas*, Anthropos, Barcelona, 1999.

Helfer, M., «Herder, Fichte and Humboldt's "Thinking and Speaking"», in Müller-Vollmer, K. (arg.), *Herder Today*, de Gruyter, Berlin, 1990, 265.-273. or.

Gipper, H., «W. von Humboldten garrantzia hizkuntzalaritza modernoarentzat», in *RIEV – Revista Internacional de Estudios Vascos* 41/2, 1996, 393.-400. or.

Gipper, H., «W. von Humboldt hizkuntzalaritza modernoaren sortzaile gisa», in *RIEV – Revista Internacional de Estudios Vascos* 41/2, 1996, 401.-418. or.

Manchester, M.L., *The Philosophical Foundations of Humboldt's Linguistic Doctrines*, J. Benjamin Publ., Amsterdam/Philadelphia, 1985.

Schmidt, S.J., *Sprache und Denken als sprachphilosophisches Problem von Locke bis Wittgenstein*, M. Nijhoff, Haga, 1968.

Trabant, J., *Apelotes oder Der Sinn der Sprache. W. von Humboldts Sprach-Bild*, W. Fink, Munich, 1986,

Trabant, J., *Traditionen Humboldts*, Suhrkamp, Frankfurt, 1990.

Valverde, J.M., *G. de Humboldt y la filosofía del lenguaje*, Gredos, Madrid, 1955.

Werlen, I., *Sprachliche Relativität*, A. Francke, Tübingen/Basilea, 2002.